

# OPEN ESKOLA BAT EZARTZEKO GIDA PRAKTIKOA

*Gida honek elementu bizia izan nahi du, Euskadin martxan jarriko diren Open Eskola berrien ekarpenekin hobetu eta aberastuko dena. Elkarrekin sortzeko filosofiak denboran iraun behar du, Euskadiko lurralde eta udalerrien artean ezagutzak eta esperientziak trukatzea ahalbidetuz eta, hala, euskal gizartean balio publikoa sortzen parte hartzeko eta kolaboratzeko kultura sustatze aldera, kolaboratzeko trebetasunetan gaituz.*

## **EDUKIEN AURKIBIDEA**

### **Hitzaurrea**

- 1. Esparru kontzeptuala**
- 2. Zergatik eta zertarako nahiko nuke Open Eskola ezarri nire lurraldean edo udalerrian?**
- 3. Open Eskola bat sortzeko oinarrizko zazpi ohar**
- 4. Open Eskola bat artikulatzea. Elementu eratzaileak**

#### **4.A. Baliabideak/Euskarria**

- i. 1. Fitxa. Talde sustatzailea
- ii. 2. Fitxa. Talde Motorra
- iii. 3. Fitxa. Idazkaritza teknikoa
- iv. 4. Fitxa. Komunikazio Plana (kanpoko eta barnekoa)
- v. 5. Fitxa. Kontuan hartu beharreko gastuak, hainbat eredurekin
- vi. 6. Fitxa. Bestelako baliabideak

#### **4.B. Open Eskola edukiak**

- vii. 7. Fitxa. Gaikuntza
- viii. 8. Fitxa. Gizartea eta komunitatea indartzea
- X. 9. Fitxa. Udalerria/lurraldea ezagutzea

- 5. Hainbat publikorengana iristeko hamabost estrategia**
- 6. Open Eskolako jardueren jarraipena tresnen adibideak**
- 7. Open Eskola adierazle orokorren taula eta oinarrizko adierazleen taula**
- 8. Eranskinak**
  1. Eranskina – Ekimen pilotuek erabilitako check list fitxa
  2. Eranskina - 88 input Open Eskola eredurako (2018ko azaroa)
  3. Eranskina - Erreferentziazko 48 esperientzien zerrenda.
  4. Eranskina - Open Eskola Gida elkarrekin sortzeko parte hartze prozesuaren kronograma
  5. Eranskina - Gasteizko HEI Herritartasunerako Eskola Irekian hiritarren parte hartzerako jardunaldiaren eredu

### **9. Esker onak**

## Hitzaurrea

Open Government Partnership Euskadi egitasmoaren barruan 4. Konpromisoa – Open Eskolaren proiektuarekin hasi ginenean, 2018an, herritarren parte hartzea gobernantza berriaren oinarritzko ardatz bat zen. Bi urte igaro ondoren, eta aurtun, 2020an, bizi dugun aldaketa eta ziurgabetasun garai honetan, gizarteak inoiz baino gehiago behar du herritarrek aktiboagoak, konprometituagoak, autonomoagoak eta erantzukideagoak izatea denon onerako.

Gobernu Irekiaren aldeko Aliantzatik, parte hartzea demokraziaren funtsezko atal bat dela uste dugu.

Itun bat da, herritarrek komunitatea hobetzen inplikatzeko dakarren ituna. Gobernuak, aldi berean, ekimen publikoekin erantzun bat emateko konpromisoa hartzen du. Gardentasunari eta herritarrek administrazioaren informazioa sarbide librean izateari esker ematen da jakitera komunaren kudeaketa hori guztia. Baina batzuetan gizartearen eta gobernuaren arteko harremanak ez du funtzionatzen, proposamen batzuk paperean geratzen dira eta emaitzen komunikazioa ez da aski argia; ondorioz, herritar batzuk ez dira baliagarri sentitzen eta parte hartzeari uzten diote.

OGP Euskadin bidea ireki nahi dugu herritarrek eta administrazioak elkarrekin egin dezaten, eta, horretarako konpromisoetako bat Hiritarrentzako Eskola Irekia da, Open Eskola.

Hiritar aktiboagoak eta gai publikoetan inplikaturako herritarrek sustatzeko espazio bat da Open Eskola, baita administrazio irekia sustatzeko ere, proposamenak bete eta egiten duena hiritarrei helarazten dakien administrazioa, hain zuzen ere. Horri buruz ari gara kultura parte hartzailea eta kolaboratiboa sustatzeaz ari garenean.

*“Open Eskola egitasmo pilotua martxan jartzea ikasteko eta parte hartze egituratua erabakigarriak diren elementuetan sakontzeko aukera bat izan da Bilboko Udalarentzat, barrutiak egitasmo pilotuan inplikatutako eta barrutiek, aldi berean, udal sailekin zein hiriko elkarte eta eragileekin komunikazio eta lan bateratua indartzeko aukera eman digutelako, eta, hain zuzen ere, hiriko elkarte eta eragileak estrategikoak eta ezinbestekoak dira Bilbon historian zehar hiritarren parte hartzea garatzeari dagokionez”.*

*Oihane Agirregoitia, Bilboko Udaleko Hiritarren parte hartze eta arretarako zinegotzia*

*“Oso kuadrilla zabala gara, sakabanatua, eta parte hartzearen gaia beti hobetzeko gai gisa ikusten genuen. Populazioa oso sakabanatuta dagoenez, batzuetan zaila da kuadrillako espiritua sortzea, herri eta herritarrek inplikatzeko. Añana Open Eskolak asko laguntzen digu herrietako pertsonen parte hartzea hobetzen. Eta lortu nahi genuen beste helburuetako bat landa eremua hustearen aurka borrokatzea zenez, eta horretarako gazteen inplikazioa lortzea, gure ustez Añana Open Eskola baliagarria izango zaigu gardentasuna areagotzeko, hain zuzen ere horixe baita gazteek haien eta erakundeen artean hesi gisa ikusten dutena”.*

*Eduardo Fernández de Pinedo, Kuartangoko Udaleko alkatea*

*“Duela bost urte Tolosatzen proiektua jarri genuen martxan, akordioan oinarrituz elementu traktore gisa, baina desadostasuna kudeatzea etorkizunean lantzeko elementu gisa geratu zitzaigun”. Tolosatzen Eskola Irekiari esker aurre egin ahal izan diogu, eta gainera modu esperimentalean. Gaur egungo egoera dela medio, esperimentazio horretan egokitu behar izan dugu, eta parte hartze digitalagora egin dugu salto; hala, orain*

*arte barne hartzen ez genituen pertsona edo talde batzuegana iritsi gara. Eskola Irekiari esker Tolosatzen proiektua hazi ahal izan da”.*

*Joseba Ormazabal, Tolosako Udaleko Komunitate eta Gobernantza zinegotzia*

*“Hiritarrekiko harreman eta gobernantza modu berriak egokitu eta berritzearen aldeko konpromisoaren barruan, Arabako Foru Aldundiak Gasteizko Udalarekin batera gidatu du “Open Eskola Gobernantza publikorako herritarrentzako eskola irekia” izeneko konpromisoa. Bi urtez ikasten, lanean eta martxan jartzen eman ondoren, esan dezakegu Open Eskola bide aproposagoa dela parte hartzea gobernantza publikoan integratzeko. Are gehiago, gurea bezalako lurralde batean, gobernantzan parte hartzea funtsezkoa da, besteak beste, populazioa finkatzeko eta gure herrien garapen iraunkorra sustatuko duten dinamikak sortzeko. Espero dut eredu hau Arabako lurralde historikoko gainerako kuadrilletara eramaten asmatzea, eta, hala, gizarte erresilienteagoak eta kolaboratiboagoak eraikitzen lagunduko dugu, oraingo zein etorkizuneko erronkei aurre egiteko ezinbestekoak baitira”.*

*Lexuri Ugarte Aretxaga, Arabako Foru Aldundiko Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria*

*“Gasteizko Herritartasunerako Eskola Irekia duela dagoeneko lau urte sortu zen, Osoko Bilkuran aho batez onartutako Hiritarren Parte Hartzerako Udal Planaren emaitza gisa, gure hirian kultura parte hartzailea hobetzeko asmoz. Hala, erreferentziazko eta erkatzeoko programa bihurtu da Open Eskola gida modu bateratuan prestatu dugun bi urte hauetan zehar. Proiektu pilotuetan eta konpromiso hau garatu duten foroetan partekatutako hausnarketak eta sinergiak lagungarriak izan dira programa hau nabarmen hobetzeko, eta dagoeneko erabat finkatuta dago Gasteizko bizitzan. Gasteizko Udalarentzat, Open Eskola proiektua Arabako Foru Aldundiarekin batera gidatzea ikasketa garrantzitsua izan da tokiko gobernantza publikoaren garapenean”.*

*Borja Rodríguez Ramajo, Hiritarren Partaidetzaren, Gardentasunaren eta Gizarte Etxeen zinegotzia  
Gasteizko Udala*

Open Eskolak pertsona guztientzako ikasteko espazio bat izan nahi du, administrazioen artean ideiak trukatzeko gida bat, euskal gizartean parte hartzeko kultura sustatzeko eta, horrela, herritar guztien ongizatea hobetzeko elkarrekin lan egin dezagun.

## 1. Esparru kontzeptuala

Gaur egun, kudeaketa publikoa modernizatzeko aurrerapauso nabarmenak ematen ari dira, erakundeak gardenagoak eta hiritarrek erakundeetan parte hartze handiagoa izatera bideratutakoak. Horrez gain, aldaketa eta ziurgabetasun garai hauetan, gizarteak hiritar aktiboago, autonomoago, erantzunkidetasuna partekatuz, kontziente eta administrazio publikoekiko zorrotzagoak eskatzen ditu, politika publikoak sortzen, kudeatzen eta ebaluatzen parte hartu eta inplikatu dena.

Hiritarrek politika publikoetan parte hartzea eskubide bat da, erantzukizuna eta beharrezkoa da, eta tokiko administrazioa da hiritarrengandik gertuen dagoen administrazioa, ahalegina indartu behar du helburu hauei dagokienez:

- **hiritarrak erabakiak hartzeko prozesuan integratzea**
- **erakunde publikoengan konfiantza berreskuratzea**
- **publikoa erantzukizun kolektiboko espazio bihurtzea**

Open Eskola batean proposatutako **helburu orokorrak** honako hauek dira:

- Hiritarren eta tokiko administrazioen beharrezkoa eta eskakizunei erantzuna ematea parte hartze arloan.
- Jardueretan parte hartzen duten pertsonen honako hau lortzea sustatzea:
  - Parte hartzea errazteko prestakuntza, gaitasuna eta trebetasun sozialak eskuratzea:
  - komunikazioa, kolaborazio lana, parte hartzeko esperientziak hobetzeko ebaluazioa, etab. Politika publikoetan parte hartzeari dagokionez jarrera proaktiboagoa eskuratzea. Administrazio publikoa eta, bereziki, parte hartzeko tresnak eta kanalak zer diren eta nola funtzionatzen duten ezagutzea.
- Hiritarren parte hartzearen inguruan sortuko diren beharrezkoetara egokitu eta horiei erantzuna emateko gaitasun handia izatea.
- Integratzailea izatea, pertsona guztiei lekua egitea, espazio irisgarriak erabiliz, kontziliazioarako neurriak eta baliabideak martxan jarri beharrezko desberdinetako pertsonentzat baliabideak eskainiz eta publiko desberdinetarako berariazko jarduerak antolatuz.
- Hiritarren parte hartzerako esperientziei ikusgarritasuna ematea, beste esparru publiko zein pribatu batzuetan sortutakoak
- Programa garatzen iraunkorra izatea eta euskarri birtuala indartzea.

Open Eskola ereduaren **helburu zehatzak** honako oinarri hauek dituzte:

- Trebetasunak ikasteko espazio bat eraikitzea, balio publikoa sortze aldera kolaboratzeko, hiritarrak, langile teknikoak eta kargu politikoak inplikatzeko.
- Gai publikoetan parte hartzeko motibazioa eta ikasketa sustatzea, aplikazio praktikotik, “eginez ikasteko”, esperientzia berritzaileak erreferentzia gisa hartuz.

- Trebetasun kolaboratiboak, negoziaziokoak eta akordiorako trebetasunak ikasteko metodoak esperimentatzea.
- Gai publikoetan parte hartzeko motibazioa eta ikasketa sustatzea, aplikazio praktikotik, “eginez ikasteko”, esperientzia berritzaileak erreferentzia gisa hartuz.
- Eztabaidarako beharrezko gaitasun eta jarrerak garatzea.  
Hiritarren aktibazio kritikoa, balio publikoa sortzean lankidetzan aritzeko.
- Berrikuntza publikoarekiko konpromisoa indartzea gobernu onari dagokionez: integritatea, gardentasuna, kontu ematea eta kolaborazio eraikitzailea.
- Kolaborazio publiko pribatua sustatzea.
- Erakunde arteko inplikazioa bermatzea jardunbide onak sortzeko, baita hiritarren parte hartzean berritzeko ere.

## 2. Zergatik eta zertarako nahiko nuke Open Eskola ezarri nire lurraldean edo udalerrian?

Lehenik eta behin, **hiritarren parte hartzea eskubide bat da, baita balio bat eta betebehar/erantzukizun bat ere**. Horiek horrela, oro har administrazio publikoen eta zehazki toki administrazioen lege erantzukizuna da parte hartzea ahalbidetu eta sustatzea.

Gizarte heldu batek gaitasuna eskuratu behar du eta parte hartze aktiboa izan behar du bere komunitatea garatzeko. **Administrazioaren eginbeharra eta erantzukizuna da parte hartze hori ahalbidetu, bideratu eta errentagarri egitea.**

Planteamendu orokorraz gain, badira oso interesgarriak diren beste zenbait kontu zehatzago:

- 1. Hiritarren artean eta maila politiko eta teknikoan elkartzeko eta ikasteko espazioak sortzea.** Hori dela eta, **Open Eskola hiritarrentzat da, baina baita erakundeetako arduradun politiko eta teknikarientzat ere**. Gure gizarteetan erakundeekiko konfiantza krisi eztabaidaezin eta larria bizitzen ari dira. Eta beharrezkoa da hori aldatzea, zintotasunaren eta konpromisoaren bidez, eta hiritarrek eta erakundeek elkar ezagutzeko, harremanak izateko eta enpatizatze espazioak sortuz. Herritarrek haien erakundeak eta ordezkariak elkarbizitzaren eta bizi kalitatea hobetzearen zerbitzura dauden tresnatzat izan behar dituzte.
- 2. Komunitate gisa interes partikularrak gainditzeko gai izan behar dugu, interes kolektiboaren eta balio publikoaren mesederako, denon onerako, eta, argi dagoenez, berdintasun eraginkor gisa ulertutako ekitatetik.**
- 3. Etengabeko ikaskuntza beharrezkoa da gure gizarte ereduaren oinarria den elkarbizitzarako.** Horretarako zenbait gaitasun eskuratu, trebatu eta landu behar dira, besteak beste, entzuteko gaitasuna, solasaldirako gaitasuna, argudiatzeko edo gatazka kudeatzeko gaitasuna; eskuratu, trebatu eta landu egin behar dira.
- 4. Gizartea eta komunitatea indartzea.** Gizarte kohesionatu batek bizi kalitate handiagoa eskaintzen du, maila indibidualean zein talde mailan lan eta gizarte aukera berriak garatzeko gai da, berrikuntza sortzen du, hiritarren konpromisoa sortzen du, lurraldeko harrotasuna indartzen du eta talentua erakarri eta horri eusten dio.
- 5. Jadanik badenari balioa ematen zaio.** Open Eskola lurraldea garatzeko estrategiarekin artikulatuta egon beharko da. Horrela, **palanka biderkatzaile gisa egingo du lan, estrategia hori sendotzeko eta pertsonak denontzako proiektu horretara erakartzeko**. Open Eskola bati esker **hiritarrengandik gertu dauden zerbitzu eta ekintza guztiak antolatu daitezke, batez ere hiritarren parte hartzearekin lotutako guztiak (baina ez horiek bakarrik)**. Halaber, hiritarren parte hartzerako beste organo eta tresna batzuekin batera artikulatzean, ahaleginak eta baliabideak erakundearekin lerrokatu eta hobetzeko balio digu.

6. **Laborategi logikarekin bat etorriz** berritzeko balioko du. **Puntu horretan zehaztu behar da Open Eskola, modu osagarrian, Hiritarren Parte Hartzerako I-Labekin konektatu behar dela (3. Konpromisoa, OGPEuskadi).** Gizarteak gero eta anitzagoak eta konplexuagoak diren honetan, galdera berberetan erantzun berriak eman behar ditugu, baina, batez ere, galdera berriak egin behar ditugu.

7. Lurraldea identifikatuko duten balioen inbentarioa garatzen du. Enpresetan “estilo, balio eta antolaketa kultura” erabiltzen den moduan, hiritarren parte hartzea, Open Eskola batean artikulatuta, **lagungarria izan beharko litzateke lurralde bat identifikatu duten balioak, estiloa eta kultura zaintzeko, babesteko eta garatzeko.**

8. Open Eskola batek LAU funtzio bete behar ditu, intentsitate handiagoz edo txikiagoz:

- Igorlea

- a. Administrazioaren eta herritarren arteko harreman horretan, Open Eskolak ahalbidetuko du **erakundeak herritarrei helarazi nahi dien informazio garrantzitsua bideratzea eta biderkatzea.**

- Sentsorea

- b. Open Eskolaren bidez sortzen diren eta Open Eskolak berak sortzen dituen jardueren bidez, gure komunitateetan sortzen ari diren egoerak diagnostikatu eta aztertu daitezke.

**Hainbat mekanismo eta tresna erabilia, egoerak, beharrianak, espektatibak edo gatazkak antzematea izango litzateke helburua, hain zuzen ere, Administrazioetik kudeaketa aurreratzeko (gaikuntzatik, gizartea eta komunitatea indartuz, administrazioa eta hiritarrak gerturatuz).**

- Transmisio uhala

- c. Open Eskola **administrazioa elikatu eta toki mailan erabakiak hartzea orientatuko duen espazioa izan daiteke, elkar elikatzeko ezinbesteko prozesuan.**

Nolabaiteko kontsulta izaera izango duen organo bat izan daiteke (bizikidetzan eta kolaborazioan dagoeneko existitzen dira horrelakoak), komunitate baten lagin nabarmen gisa eratzten den neurrian. Hiritarrek izan behar dute aldaketaren benetako motorra, politika publikoak diseinatzeko, kudeatzeko eta ebaluatzeko orduan jauzi kualitatiboa ematea ahalbidetuko duten hobekuntzak bilatu eta abian jartzeko.

- Zuzenketa faktorea

- d. Open Eskolak aski malgutasun eta egokitzeko gaitasun izan beharko du **udalerri edo lurralde batean eragina izan dezaketen auzi zehatzen inguruko edukiak bideratzeko**, aukera gisa zein mehatxu modura (antzemateko mekanismo zehatzak ezarriz hiritarrekin batera).

### 3. Open Eskola bat sortzeko oinarrizko zazpi ohar

1. **Garrantzitsua da adieraztea Open Eskola batek ez duela ekintzen kopurua oinarritzat hartzen. Ikuspuntu kualitatibotik, balio publikoa sortzera bideratutako Administrazio baten estrategia eta politika nola artikulatzen den hartzen du oinarritzat.** Horregatik, ez dago nahitaez espazio bakar bati lotuta (ez fisikoa, ezta birtuala ere).
2. **Open Eskola existitzea bera Administrazio sustatzailearen kasuan kasuko organoan adostu beharko litzateke, modu egokian.**
3. **Horrenbestez, plangintza urte anitzekoa izango da, dagokion organoaren akordiorik zabalenak babestuta.**
4. **Aurrekoarekin lotuta, Open Eskolako hartzaileak hiritarrak, oro har, zein erakundeetako arduradun politiko eta teknikoak dira.**
5. Erakunde bakoitzak gida moldatu ahalko du, bere beharrian, populazio, eskala, koiuntura edo interesen arabera modu interesatu eta estrategikoan orientatuz, baina **Open Eskola inguruabarretan proiektu "identifikagarria" sortuz.**  
Gida honek malgua izan nahi du, errealitate desberdinetara moldatzea ahalbidetzeko, baina, aldi berean, aski zehatza izan nahi du Open Eskola ereduaren nortasun ezaugarriak identifikatu eta antzematea ahalbidetuko duten zenbait betekizun ezartzeko.
6. Open Eskolak honetarako balio du:
  - a. Entitatearen lurralde esparruan dagoeneko **existitzen dena zehaztu eta antolatzea** (programak, zerbitzuak, eragileak, etab.), Open Eskola batean integratzeko modukoa baldin bada.
  - b. **Existitzen ez dena eta Open Eskola hemen ulertzen dugun moduan sortzeko ezinbesteko baldintza den hori zehaztea.**
  - c. Egiaztatze **zerrenda bat prestatzea antzemandako beharrianekin**; hala, ekintza lerroak ezartzeko eta/edo lehenesteko tresna gisa funtzionatuko du.
7. Open Eskolak **kultura parte hartzailea eta kolaboratzailea sustatzeko ahalegina egiten du, bere misiotik zein diseinutik, edukian zein forman.**
  - a. Eragile sozialen arteko, erakundeen arteko eta erakundeen eta hiritarren arteko kolaborazioa sustatzen du, maila guztietan, politika publikoen fase guztietan.
  - b. Halaber, publikoaren eta pribatuaren arteko kolaborazioa.

## 4. Open Eskola bat artikulatzea. Elementu eratzaileak

Open Eskola bat eraikitzeko eredia malgua den arren, horietan guztietan oinarrizko zenbait elementu kontuan hartzen dira. Eraikuntza prozesu partekatu batetik abiatuz, bi eremu nagusitan ezinbesteko baldintzak mugatu dira, biak beharrezkoak baina baldintza desberdinei dagokienez:

### 4.A. Baliabideak/Euskarria

- 1.fitxa Talde sustatzailea
- 2.fitxa Talde motorra
- 3.fitxa Idazkaritza teknikoa
- 4.fitxa Komunikazio Plana (Kanpoko zein barnekoa)
- 5.fitxa Aurrekontu zuzkidura, ereduekin
- 6.fitxa Bestelako baliabideak

### 4.B. Open Eskola edukiak

- 7.fitxa. Gaikuntza
- 8.fitxa. Gizartea eta komunitatea indartzea
- 9.fitxa. Udalerria/lurraldea ezagutzea

#### 4.A BALIABIDEAK/EUSKARRIAK

- Zer egiten du? Eginkizunak
- Nork hartzen du parte? Osaera
- Gomendioak
- Beste batzuk

---

## TALDE SUSTATZAILEA – 1. FITXA

Zer egiten du? Eginkizunak:

- **Open Eskolaren helburu orokor eta zehatzak definitzea. . Gure lurraldean Open Eskola bat ZERTARAKO nahi dugun definitzea. Open Eskola lurraldeko/udalerriko politika estrategikoan nola eta zein inguruabarretan zehazten den planteatzea.**
  - Aurrekontu zuzkidura eta, hala badagokio prozedura bultzatzea.
  - Talde Motorra osatzeko profilak identifikatzea
  - Idazkaritza teknikoa eratzea, ezartzea, baldintzatzea eta orientatzea. o Eskolaren jarraipen datak eta mugarrak planifikatzea

Parte hartzaileak. Osaera:

- Ordezkaritza politikoa
  - Gobernu taldeko kide guztien ordezkariak, modu egokian.
  - Open Eskolaren ardura duen zinegotzi ataleko ordezkariak, oinarritzko mailan.
- Lurraldeko/udal mailako teknikariak
  - Ahal bezain atal gehien inplikatur, Open Eskolari zeharkakotasun handiagoa emanez (diseinuan eta helburuetan), modu egokian.
  - Oinarritzko mailan, Open Eskolako Sustapen Ataleko teknikariak
  - Idazkaritza teknikoa (barrukoa edo kanpokoa izango den zehaztu ondoren)

Talde sustatzailea – gomendioak

- Talde sustatzaileak ziurtatu egingo du Open Eskola ekimena benetan zeharkakoa izatea eta erakundearen babesa izatea. Aukera bat da talde sustatzailea ex novo modura ez eratzea (gida osoaren filosofia dagoeneko existitzen dena baliatu eta balioa nabarmentzea da), baizik eta dagoeneko existitzen den organoren bat baliatzea.
- Talde sustatzailearen aurretik nabarmendu behar da Open Eskola bultzatzeak, modu idealean, erakunde sustatzailearen beraren barruko akordiorik zabalena izan beharko lukeela oinarritzat.
- Hori dela eta, ulertzen da udalbatza dela (edo lurralde organo baliokidea) Open Eskolaren funtzionamendua bermatu eta legitimatzeko egokiena.
- Open Eskolaren barne komunikazioko programan, organo horri informazioa emango zaio etengabe, Open Eskolaren jarraipena eta norabidea bermatzeko.

## IDAZKARITZA TEKNIKOAK – 2. FITXA

Formatua/Aukerak:

- Barrukoa
  - Talde sustatzaileak izendatutakoa
  - Lanpostuen Zerrendan eta gaitasun eskuliburuetan jasotzea gomendatzen da.
- Kanpokoak
  - Prozedura publiko bidez kontratatzea (SPKL), kontratuaren zenbatekoari dagokionez.

Zer egiten du? Eginkizunak:

1. Open Eskolaren antolaketa eta garapena
2. Programatutako jardueren, ekitaldien, ikastaroen eta abarren kudeaketa integrala, aukera presentzialak eta ez presentzialak zainduz.
3. Hiritarrek jarduera eta ekitaldien ko-diseinuan parte hartze aktiboa izateko mekanismoak kontrolatu eta ikuskatzea.
4. Organoak kudeatzea, koordinatzea eta deialdia egitea (talde sustatzailea, talde motorra edo eratuko den beste edozein).
5. Komunikazioa kudeatzea
6. Atal presentziala eta on line atala modu osagarri eta konbinatuan gaitzea (inguruabarrekin eta testuinguruekin bat etorritik).
7. Emaizak ebaluatzen txostena

Idazkaritza teknikoak artikulatzeko gomendioak. Zer eskatu behar da?

1. Metodologia parte hartzailea prozesu osoan integratzea.
2. Taldeen arteko zein taldeen eta hiritarren arteko koordinazioa.
3. Programaren ebaluazio eta jarraipena egiteko tresnak
4. Eskolaren diseinu grafiko propioa, diseinu hori jardueren maiztasun edo programetara egokitze proposamena
5. Parte hartze jardunaldi bat antolatzeko adibidea (prestatuntza proposamena, espazioak prestatzea, metodologia, garapena, komunikazioa eta ekitaldiaren ebaluazioa).
6. Tailer bat antolatzeko adibidea.
7. Hitzaldi/mintzaldi bat antolatzeko adibidea.
8. Talde kudeatzailearen proposamena.
9. Egiatzapen lanen aurretik, eskolako programaren barruan jarduerak garatu ahal dituzten pertsonen hasierako proposamena (pertsona prestatzaileak, dinamizatzaileak, gidak, aurkezleak, etab.).
10. Hainbat publikotara iristeko ekintzen proposamena: elkarteak, haur eta nerabeen komunitatea, gazteak, familiak, langile teknikoak, etab.
11. Eskolaren aldagai birtualari garrantzi handiagoa emateko lan proposamena.
12. Eskolaren iraunkortasun proposamena.
13. Hobetzeko proposamenak.
  - i. Kolaborazio berriak (ekonomikoak, komunikaziokoak, teknikoak, etab.).
  - ii. Open Eskolaren komunikazio eta hedapen modu berriak (barnekoak zein kanpokoak)
  - iii. Open Eskolatik abiatuta, komunitatea sortzeko modu berriak
14. Ingurumen, hizkuntza, berdintasun, genero eta aniztasun irizpideak kontuan hartzea.
15. Ebaluatu beharreko proiektuaren xede den programazioaren aurrekontua, kontzeptuak banakatuta eta zerga oinarria, BEZa eta bestelako zergak bereiziz.

---

## TALDE MOTORRA – 3. FITXA

Nork hartzen du parte? Osaera:

- **Herritarrak**
- Udaleko teknikariak
- Idazkaritza teknikoak
- (beharrezkotzat joz gero, kide gehiago sar daitezke)

Zer egiten du? Eginkizunak:

- Talde tekniko-estrategikoak planteatzen dituenak aztertzea eta hobetzeko proposamenak egitea.
- Open Eskolaren programa hobetzeko proposamenak egitea eta aztertzea
- Open Eskolaren jardueren jarraipena egitea
- Open Eskolaren eskaera, beharrian eta espektatibei erantzuna ematea
- Helburuak egokitzea.
- Osagai, gai, aditu, metodo berriak proposatu eta/edo aztertzea.

Talde motorra - gomendioak

- **Hiritarrei dagokienez horrela era daiteke:**
  - **Gutxieneko eskakizun mailan, interesa agertzen duten pertsonetatik edo boluntarioetatik hasita**
  - **Sistema bat ezarri beharko litzateke, talde honetara gehitzeko irizpideak definitzeko, aski ordezlagarritasun izan dezan (abiapuntutzat hartuz dagoeneko existitzen diren parte hartze organoak, inbentarioa eta existitzen diren elkarteekin konexioa, herritarrak norbere izenean gehitzeko mekanismoak, etab.).**

Bileren aldizkakotasuna

- Ikasturtearen hasieran aurreikusitako programa aztertu eta elikatzeko
- Ikasturtearen amaieran, ebaluazio/balorazio orokorra egiteko
- Open Eskolaren jarraipen egokia egiteko behar den guztietan (printzipioz, bi hilean behin)

---

## KOMUNIKAZIO PLANA. - 4. FITXA

Barne edo kanpo komunikazioko plan/estrategia bat prestatzea ezinbestekoa da, eduki eta estrategiak modu adostuan eginez honako hau ahalbidetzeko:

- Open Eskolaren helburuak eta jarduerak ezagutzera ematea
- Tokiko/lurralde mailako politikan kokatzea eta balioa ematea
- Balio publikoa sortzeari lotzea
- Eragileak, pertsonak eta entitateak gehitzea
- Komunitatea sortzea

Komunikazio plan honek honako publiko hauek dauzka:

1. Hiritarrak, oro har (elkartuak edo ez)
2. Lurralde edo udalerri mailako teknikariak
3. Lurralde edo udalerriko ordezkari politikoak
4. Lurraldean existitzen diren parte hartzeko organoak
5. Baita honakoak ere:
  - a. Beste Open Eskola batzuk
  - b. Lurraldeko bestelako eragile ekonomiko eta sozial batzuk, kolaborazio publiko/pribatu gisa, inplikatu daitezkeenak.
  - c. Beste erakunde batzuk, Open Eskola sustatzen duen erakundeaz gain

### Off Line komunikazioa

- Jardueren komunikazio triptikoa, hiru hilabeterik behin
- Kanpo euskarriak, markesinak, oppisak, iragarki taulak, etab. • Tokiko telebista eta irrati kateak
- Jarduera eta ekitaldien kartelak
- Ekitaldiak streaming bidez eskaintzea
- Informazio puntuak
- Tokiko eta/edo udal mailako aldizkarietan gehitzea

### On line komunikazioa

- Newsletter edo berriazko buletinak edo dagoeneko existitzen direnetan atalak gehituz
- Erakartzeko bideoak, parte hartzaileen eta/edo hizlarien mintzaldiekin, jardueren eta ekitaldien aurrekoa zein ondorengoa hedatzea ahalbidetuz.
- Liburutegi digitala, hiritarren parte hartzearen inguruko espazio birtuala, hiritarren parte hartzearen inguruan egindako ekimenen, planen eta proiektuen audioak, agiriak eta bideoak aurkitzeko bertan.
- Bannerrak eta deiak.
- Tokiko sare sozialak

### Komunikazio prozesurako gomendioak

- Komunikazio planaren barruan Open Eskolaren komunikazio dimentsio bat landu beharko da, Barne Komunikazioa / Komunikazio Estrategikoa deitzen duguna; Open Eskolaren balioaren barne irismenaren (teknikoa/politikoa) eta komunikazio arloaren aholkularitzari dagokio, honela
  - tresna estrategiko modura
  - hiriko sentsoreen pultsua neurtzeko eta bideratzaile modura.
- Dagoeneko erakundean existitzen diren elementuak, kanalak, harremanetarako elementuak (formalak eta informalak) posible den neurrian baliatzea komeni da. Ez da ezer berria sortu behar balia dezakegun zerbait baldin badago.
- Nolanahi ere, udaleko teknikari zein erakundeko ordezkari politikariengana iristeko eta haiek neurri handiagoan motibatzeko estrategia prestatu behar da.
- Aipatu bezala, Open Eskola jarduera bultzatzean ahalik eta akordio zabalena hartzen da oinarritzat, erakunde sustatzailearen barruan. Horrela, ulertzen da osoko bilkura dela (edo lurralde mailako organo baliokidea) Open Eskolaren funtzionamenduari babesa eta zilegitasuna ematen diona, eta hortaz, osoko bilkura behar bezala eta etengabe informatu beharko da.

---

## EREDU DESBERDINEKIN KONTUAN HARTU BEHARREKO GASTUAK- 5. FITXA

### Beharrezkoak

1. Kanpoko idazkaritza teknikoa kontratatzea (hautabide hori aukeratzea erabakitzen bada).
2. Ekintzak eta ekitaldien kudeaketa integrala, espazioak barne.
3. Programatutako jarduera eta ekitaldi bakoitzeko pertsona hezitzaile, gaitzaile eta/edo dinamizatzaileei zuzendutako ordainketa, kudeaketa, ostatu hartzea, joan-etorri, dieta eta bestelakoei lotutako gastuak.
4. Oro har programaren eta zehazki jarduera bakoitzaren komunikazio kudeaketa.
5. Material grafikoa inprimatzea eta hedatzea, beharrezkoa izanez gero, on line euskarriak eta balizko grabazioak barne.
6. On line plataformen gastuak (presentzialki egingo ez diren jarduera eta/edo saioen kasuan)
7. Zerbitzu gehigarriak, beharrezkoak izanez gero: itzulpenak, irisgarritasuna, zeinu hizkuntza, haurtzaindegi zerbitzua, joan-etorriak.

### Osagarriak

8. Open Eskola puntua(k). Markaren presentzia eta hiritarrek marka identifikatzea indartzeko informazio puntu bat edo batzuk muntatzea lurralde/udalerriko leku estrategikoetan.
9. Bitartekoen Plana: ikasturtean zehar jardueren plangintzan oinarrituz bitartekoen plana ad hoc diseinatu, kudeatu eta aholkatzea.
10. Open Eskola barruan helburuzko publikoren baten interes edo onarpena dela medio ildoren bat handitzeko aukera.
11. Ikastaroak edo jarduerak kudeatzea eta transferitzea, handitu edo berbideratuz, erakundeko beste arlo batzuetarantz (prestakuntzari dagokionez eta kasuan kasuko arloekin bat etorritik).
12. Adituen Batzordeak, etengabe eta aldizka, aztertu eta hobekuntza proposamenak egingo ditu.
13. OPEN ESKOLA tokiko hezkuntza arautuko ikastetxeetara gerturatzea.

### Ereduak

Lau agertoki, adibide gisa:

- Añanako Kuadrilla eredua
- Tolosako Udala eredua
- Gasteizko Udala eredua.
- Bilboko Udala eredua

Hiru formatu, adibide gisa:

- Ereduzko mintzaldia
- Erakartze tailerra
- Egun osoko jardunaldia

## Taula orientagarria

|                                                        | Gasteiz eredua                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      | Bilboko eredua                                                                                                                                                                                                                                                                                                     | Tolosako eredua                                                                                                                                                                                                                                                                   | Añanako kuadrillaren eredua                                                                                                                                                                                                                                                        |
|--------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Zein jarduera egin dira?                               | <p>Hiritarrei zuzendutako 3 hitzordu (hainbat metodologia erabiltzeko aukera, hitzaldiak, mahai inguruak, elkarrizketa, etab.)</p> <p>Hiritarrek parte hartzeko jardunaldia.</p> <p>Lau bisita udaletxera</p> <p>Trebetasun sozialak lantzeko lau tailer</p> <p>3 solasaldi</p> <p>Dinamika parte hartzaile bat</p> <p>Elkarteentzako tailerrak</p> | <p>Parte hartzean dagoeneko ezarritako jardueren mapaketa.</p> <p>Inkesta egitea, udal sail eta elkarteentzat parte hartzeko prestakuntzari dagokionez.</p> <p>Ikastaroak diseinatzea: Trebetasun sozialei buruzko barne prestakuntza, online eta presentziala</p> <p>Open Bilbao Eskola marka/zigilua sortzea</p> | <p>Aurrez aurreko ekitaldi bat, eskolaren lehen edizioa irekitzeko.</p> <p>Bi prestakuntza saio online, trebetasun sozialei dagokienez.</p> <p>Parte hartzeko bi online saio, bata gazteekin eta bestea hiritarrek oro har, haien beharrianak eta ziurgabetasunak ezagutzeko.</p> | <p>Parte hartzeko bi saio presentzial, proiektuak elkarrekin egiteko.</p> <p>Bi prestakuntza saio online, trebetasun sozialei dagokienez.</p> <p>Ekitaldi bat online, eskolaren lehen edizioa ixteko.</p> <p>Bidelagun proiektutan: Gobernantza Jarduerak Gazteak Komunikazioa</p> |
| Ereduzko hitzaldiaren aurrekontu zenbatespena          | 2.100 euro (barne hartuz aurkezle eta hizlarien soldatak, joan-etorriak, dietak)                                                                                                                                                                                                                                                                    |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |                                                                                                                                                                                                                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
| Gaikuntza tailerraren aurrekontu zenbatespena          | 880 euro (barne hartuz prestatzaileen soldatak, joan-etorriak, dietak)                                                                                                                                                                                                                                                                              |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |                                                                                                                                                                                                                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
| Egun oso bateko jardunaldiaren aurrekontu zenbatespena | 3.500 euro (barne hartuz aurkezle eta hizlarien soldatak, joan-etorriak, dietak)                                                                                                                                                                                                                                                                    |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |                                                                                                                                                                                                                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                    |

Jardueren adibideak gidaren eranskinetan ikus daitezke.

**Oharra:** ikus-entzunezko baliabide teknikoek, aretoak alokatzeko edo materialen edo aretoko laguntzaren kostuak ez dira jaso. Eta kontuan hartu behar harko litzateke kanpo idazkaritza kontratatu behar den ala ez. Horrelako gastuak aipatutako udalerrietan kontsultatu daitezke.

---

## BESTE BALIABIDE BATZUK – 6. FITXA

Lurraldean Open Eskolaren balioak partekatzen dituzten beste ekintza batzuk integratzea eta gehitzea garrantzitsua da: parte hartzea, balio publikoa sortzea... Horregatik, honako hauek, besteak beste, kontuan hartu behar dira:

1. Erakunde sustatzaileak berak sustatutako ekintzak, esaterako dirulaguntzei buruzko informazio mintegiak, laguntzen kudeaketa, oinarritzko fiskalitatea, parte hartze organoen mekanismoak eta izaera, e-administrazioa... Ekintzak, berez, Open Eskolan bertan sartzeko modukoak dira, bertako eskaintzaren parte gisa.

2. Eta existitzen diren eta/edo kolaborazio aktiboa hauekin:

- Lurraldeko elkarteak
- Entitate pribatuak
- Lurraldeko beste erakunde batzuk
- Beste Open Eskola batzuk
- ...

Open Eskola ezagutzera eman eta hedatzeko ere balio du kolaborazio horrek, baita prestakuntzan kolaborazioak eta eskaeraren araberako jarduerak sortzeko ere. Gure gizartearen esparru askotako ezagutza eta *expertise* delakoa kudeatu eta horren balioa nabarmentzea da kontua.

#### **4.B. EDUKIAK - OPEN ESKOLA**

